



Arriagagoxinakoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Arriagagoxinaga / Ubillena
Ahozkoa: Ubillena / Kósiñengue



43° 10' 11"

2° 35' 33"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Arriaga-gojina... situada en la cofradía o barriada de Eitua jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende sesenta y uno y cuatro estados, equivalentes a doscientos treinta y tres metros cuadrados de cabida, y la que se compone de piso bajo con portalada, cocina, un dormitorio y cuadra, de piso segundo con un dormitorio, salón y pajar; y de piso tercero de desban y pajar; y de un horno contiguo a la misma casería, que comprende dos y medio estados..."

DJE 2/191 or. (1868)

Baserri honen gaineko lehendabiziko arrasto dokumentala 1745eko Bizkaiko su-erroldakoa da, *Goxina*, alegia, eta hortik aurrera, aldaera desberdinak ezagutu ditu: *Arriaga Goxinacoa* (1825, PE/1825), *Goxiñacía* (1859, BUA, Nmcr), *Arriaga-Gojina* (1869,DJE, 2/ 191. orr), *Goxinaga* (1876, DJE, 3/ 110. orr), *Goxinena* (1892, DJE, 6/ 99. or.), *Arriagagoxinaga* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, *Ubillena* moduan ezagutzen da. Lehen etxe horretan bizi zen gizon bati jarritako ezizena ei da.

XVII. mendean zabaldu zen egitura dauka, baina bere altuerak eta lehenengo solairuko leihoen neurriak XIX. mendean, behintzat, egindako erreforma baten berri ematen digu. Hala, ohiko hiru gorputzak bereizten dira, harritzkoak, aldamenekoak; eta erdikoa, egurrezko egitura eta adreiluduna, kolore bizikoa, atar-

tearen gainean. Lehenengoetan, harlangaitza erabili zuten hormetan eta harlandua, kantak eta leiho inguruetan, azpimarragarria izanik eskuma aldeko beheko solairuko leihoaren neurri eskasa. Azpimarragarria den moduan, erdialdeko adreiluzko hormarekin kontaktuan dagoen kantaletako harria kareharria izatea, beranduago egindakoaren seinale. Erdialdeko gorputzari egurrezko dintelak eusten dio, janbetako inpostaren gainean. Lehenengo solairuan zabaldu diren leihoak handiagoak dira, pintaturiko plaka batek atonduak, eta frontisekoak, osterak, egurrezkoak, zurajejan ondo txertatuak. Gainean, tartekatuta, adreiluzko 22 txoritoki ikus daitezke. Isurialde biko teilatua dauka, hegal zabalekoa eta, horrelakoetan egiten zen moduan, eusteko egurrezko besoak erantsi zizkioten.

toponimia

Arriagaganekoetxea *sarreran esandakoari (Ikus Arriagaganekoetxea)*, kasu honetan gehitu behar diogu Goxina da etxearen benetako izena eta oso gutxitan ageri da Arriaga izenez lagunduta. Beste guztiak ez bezala esangura iluna du baina ez dirudi osin hitzarekin zer ikusia duenik. Hasieran Goxina bazen ere berehala bihurtu zen Goxinakoa eta XIX. mendean herri-etimologia dela medio Gojenaga. Ahoz, inguruan arrunta den bezala hasierako G-ren ordez K- ahoskatzenda da.